



## SEGURAKO UDALA

### HERRIKO TABERNETAKO TERRAZAK

Covid-19 dela eta, aurkitzen garen deseskaladaren fase honetan, tabernei terrazak irekitzeko aukera eman zaie. Terrazen %50eko baimena daukate berez eta goiko erakundeetatik udalen esku utzi dute haundiagotzeko baimena emateko aukera. Gure herriko tabernariak horrela egitea eskatu diote udalari.

Beraien eskaera eta egungo pandemiaren egoera aztertu ondoren, bi ondorio nagusi azpimarratzen ditugu:

- Terrazetako eremua haunditzeak ekarri ditzazkeen jende pilaketak eta sortu litezkeen jarrera desegokiak, ondorio larriak ekarri ditzaketela herrira, gaixotuen kantitatea haundituz.
- Martxoaren 14tik tabernak itxita daude, beraiengan kalte ekonomiko haundia ekarri duen honek. Deseskaladaren une honetan lana egiteko duten aukera bakarria terraza da. Udalaren zeregina ere bada herriaren garapenari begira eta beti ere ahal den neurrian, herriko komertzio, taberna eta abarri laguntzea.

Ondorioz, oreka bat lortu nahian, ondorengo erabakia hartu dugu:

- Tabernariak, aurrez baimendua zuten zoru publikoa baino haundiagoa uztea.
- Gune horretan, beharrezkoak diren neurriak beteta, kabitzen diren mahaia jartzeko aukera ematea. Inoiz ez, Udal Ordenantzetan jasota dagoen 10 mahaiko kopurua baino haundiagoa.
- Plazako banku eta petrilak itxita jarriko ditugu (bestela ere Covid-19 dela eta ezin dira erabili) fase berri batean berriro erabiltzeko baimena etortzen den arte.
- Deseskalatze faseak aurrera doazen bezala, neurri hauek ere aldatzen joango dira, pixkanaka pixkanaka eremuak bere onera etorri arte.

Terrazetako erabilera egokiaren ardura denona da. Mantendu distantziak, gehienez 10 laguneko taldea bildu, tabernariak mahaia eta aulkiak desinfektatu aurretik ez eseri bertan, terrazan eserita kontsumitu, ez erabili herriko banku eta petrilak horretarako... Erabilera desegokiak ondorio kaltegarriak ekarri ditzake etorkizun hurbilean denontzat: taberna eta zerbitzuak berriz itxita eta herritarrak etxean.

Arduraz jokatu dezagun, elkar zainduz.

Eskerrik asko denoi!

Seguran, 2020ko maiatzaren 13an

Segurako Udala

